

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ez zituzten esklaboek eraiki

WWW.WORDPRESS.COM



EGIPTO, ORAIN DELA 4.500 URTE. Milaka pertsonak munduko hilobi ezagunenak, handienak eta iraunkorrenetakoak eraiki zituzten Keops, Kefren eta Mikerinos faraoientzat. Orain artean, historiako liburuek, literaturak, filmek nahiz komikiek Gizeh-ko piramideak esklaboek eraiki zituztela zioten. Baina Egiptoko kultura ministro Farauk Hosni-k langile askeen obra direla jakinarazi du berriki.

1990ean piramide inguruetan hilobi xumeagoak aurkitzen hasi ziren, Keops eta Kefren faraoien hilobiak eraikitzen ari ziren langileenak, hain zuzen. Tumulu horiek buztin lehorrezko adreiluz eginak dira, eta datazioaren arabera piramideen garai berekoak dira.

Egiptoko Antzinaroko Kontseilu Goreneko zuzendari Zahi Hawass-ek esan du hilobiak erregearen hilobiaren ondoan eraiki zituztela eta, beraz, pentsaezina dela pertsona horiek esklaboak izatea. "Esklaboak izan balira, ez zuten beren hilobiak nagusiaren alboan egiteko eskubiderik izango".

Literaturak eta filmek, orain arte, Gizehko piramideak esklaboek eraiki zituztela esan arren, egiptologoen topikoa gezurtatu berri dute.

Hawassek dioenez, langile horien lan baldintzak nahiko onak ziren. Lan gogorra zenez, langileak hiru hilabete behin txandakatzen ziren eta, hala ere, lan istripuak ohikoak ziren, aurkitutako hilobiak lanean hilda-koenak baitira.

Egunero, deltako abeltzainek 21 behi eta 23 ardi bidaltzen zizkieten langileei (10.000 inguru). Horren truke, ez zuten zergarik ordaindu behar, proiektu nazional garrantzitsu batean laguntzen baitzuten.

Hilobietan aurkitutako informazio honek guztiak, Hawassen aburuz, piramideetako langile izatea oso lanbide balioetsia zela adierazten du, gaur arte kontrakoa pentsatu izan den arren.

Gizehtik gertu, Saqqara-n, beste bi mausoleo aurkitu dituzte orain dela gutxi. Hawassentzat, aurrerantzean oraindik ere aurkikuntza garrantzitsuak egin daitezkeela esan nahi du horrek. Egiptologia modernoak topiko batzuk baieztatzen eta beste batzuk hausten jarraituko du.

Arrastoak

Parisko 100 urte Kuboan sartuta

DONOSTIAKO Kursaalera Kubo-Kutxa aretoan, XIX. mendearen bigarren erditik gerra-arteko garairaino sortu ziren arte mugimenduen buruzko erakusketa dago zabalik apirilaren 5era arte. Beste modu batera esanda, inpresionismotik abangoardietarainoko bidea laburbildu dute 75 artelanetan;

obra horiek Oscar Ghez-ek Geneveko Petit Palais-en gordetako bildumakoak dira. Degas, Renoir, Utrillo, Van Dongen, Chagall, Picabia, Picasso, Sunyer eta beste hainbaten lanak ikus daitezke bilduman (irudian, Alphonse Léon Quizet-en *Le Maquis de Montmartre*, 1910).



WWW.DONOSTIA.ORG